



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2019.05.27

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Nerea Letamendia Belloso

Jokin Azkue Arrastoa

Patxi Amantegi Zubiria

Iñigo Alonso Sarasibar

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemeretziko maiatzaren hogeita zazpian, 14:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

1. Aurreko akta onartzea.
2. Onartzea Tolosako Bide publiko jakin batzuetan ibilgailuen aparkamendua kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeko zerbitzuaren kontratua luzatzea.
3. Onartzea Tolosako Samaniego herri ikastetxean aurreikusitako erreforma-lanen ziurtagiri-kitapena (Zk. 025 (F/CP/19 faktura).
4. Hasierako onespina ematea "18. Apattaerreka" Hirigintza esparruko 18.1 (Tolosa)-Ibarrako lurak" azpiesparruko hiri antolamenduko plan bereziari.
5. Onartzea Inauterietako karrozak gordetzeko pabiloi industrial bat errentan hartzeko lizitazioari hasiera ematea.
6. Alkatetza-dekretu hauen berri ematea: 2019ko maiatzaren 16tik 22ra (dk2019/819-2019/865).

Kontuhartzailea:

Ainhoa Molinos Zubiaurre

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2019ko maiatzaren 20an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.



TOLOSAKO
UDALA

2. ONARTZEA TOLOSAKO BIDE PUBLIKO JAKIN BATZUETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA KONTROLATZEKO, MUGATZEKO ETA ANTOLATZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA LUZATZEA.

Gaia mahai gainean geratu da.

3. ONARTZEA TOLOSAKO SAMANIEGO HERRI IKASTETXEAN AURREIKUSITAKO ERREFORMA-LANEN ZIURTAGIRI-KITAPENA (ZK. 025 (F/CP/19 FAKTURA).

Cubiertas Pagola SL enpresari esleitu zion Tolosako Udalak Samaniego Herri Ikastetxean Aurreikusitako Erreforma-lanen kontratua, kopuru hauetan: printzipala: 82.940,04 € gehi % 21eko BEZa: 17.417,41 €. Beraz, guztira 100.357,45 €-koa izan zen esleipenaren zenbatekoa.

Orain, ziurtagiria-kitapena aurkeztu du.

Ziurtagiri zenbakia.....	Faktura zenbakia.....	Zenbatekoa
ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	025	104.116,37 €
GUZTIRA.....		104.116,37 €

Udal teknikariak ziurtagiri honi buruz egin duen txostenean honako hau adierazi du: esleipenaren eta likidazioaren artean 3.758,92 €-ko aldea dago, alegia, % 3,745eko gehikuntza, eta prezioaren bariazioa gertatu da neurketetan diferentzia bat egon delako, beraz:

- Erreteren desmuntaia
- 1,5 mm-ko txapa prelakatuko erretena
- Erremateak 0,6 mm-ko txapa prelakatuan, teilatuan eta fatxadetan.

Hortaz, hori dena kontuan izanik eta udal teknikariaren proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea aipatutako fakturaren gehikuntza 3.758,92 €-koa (% 3,745) 1.0700.622.920.31 2019 partidaren kargura.



TOLOSAKO
UDALA

BIGARRENA. Era berean, onartzea faktura-kitapenaren guztizkoa (Zk.: 025, eta seriea: F/CP/19), gehikuntza barne. Zenbatekoa: 104.116,37 € (BEZa barne).

HIRUGARRENA.- Dagokion faktura ordaintzea.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Cubiertas Pagola SL enpresari eta Kontuhartzaitzari.

4. HASIERAKO ONESPENA EMATEA "18. APATTAERREKA" HIRIGINTZA ESPARRUKO 18.1 (TOLOSA)-IBARRAKO LURRAK" AZPIESPARRUKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIARI.

Aurrekariak:

2018/09/20an, Idoia Bastida Seguesek, TOLOSAKO APATTAERREKA INDUSTRIA LURRA, S.A. enpresaren izenean, "18. Apattaerreaka" hirigintza esparruko 18.1. (Tolosa)-Ibarrako lurra azpiesparruko hiri antolamenduko plan berezia aurkeztu zuen; ale bat euskaraz eta, bestea, gazteleraz, paperean eta cd-an.

Agiriaren barne dago azpiero horretako plan bereziaren Ingurumen-azterlan estrategikoa, zeinak ingurumen-azterlanaren irismeneko dokumentuaren zehaztapenak jasotzen dituen. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen administrazioaren Zuzendaritzak egina, 2018ko apirilaren 12an (21/2013 legea). (B.5.1/18.1/2017/0001 espedientea)

2018/10/23an eta 2018/11/13an, bi bilera egin ziren Tailsa, Tolosa eta Ibarrako udaletako zenbait ordezkariarekin.

2018/11/20an, bilera horien ondorioz eraikigarritasunaren banaketa orekatzen duen ordenazio berri bat aurkeztu zuen Tailsak posta elektronikoz.

Udaleko Ingurumen eta Nekazaritza teknikariak eta Hirigintzako buruak txosten teknikoak egin ondoren, 2019/02/28an, alkatearen 2019/0368 Dekretuaren bidez, honako erabakia hartu zen:

"Lehena.- Eskatzaileari honakoak zuzentzeko eskatzea Planari Hasierako Onespena eman aurretik.

- *Sestra azpiko eraikigarritasuna zehaztea.*
- *Ibilgailuentzako aparkalekuei dagokienez, beharrezko plaza kopurua betetzen dela justifikatzea. Eta dagozkion bizikleta-aparkalekuak kokatzea.*
- *Plana generoaren eta hizkuntzaren ikuspegitik ebaluatzea eta Planaren Memorian eta Araudian jasotzea azterketa horietan ondorioztatutako alderdiak.*
- *2/2006 Legea eta 123/2012 Dekretuko estandarren justifikazioa aurkeztea.*



- *Udalari lagatu behar zaion eraikigarritasun haztatuaren %15eko lagapena zehaztea. Eta Bideragarritasun-ekonomiko-finantziarioari buruzko Azterlanean (5. dokumentuan) baloratzea eta Jasangarritasun Ekonomikoa izeneko dokumentuan (6. dokumentuan) jasotzea.*
- *Eremu honetan zenbait erabilera debekatzea proposatzen da:*
 - *gasolina-zerbitzuguneak, mota guztietako erregaien gordailu eta biltegiak, eta horien salmentarako guneak.*
 - *makinariarentzako, txatarrarentzako, ibilgailuentzako edo materialentzako biltegiak eta aire zabaleko gordailuak.*
 - *zoologia-guneak.*
 - *mehatze-industriak eta era guztietako erauzketak.**Bestalde, erabilera bateragarri edo onargarrietan merkataritza-erabilera espresuki debekatzea ere proposatzen da, horrelako jarduera bat industria-eremuaren funtzionaltasunerako oztopo izan baitaiteke.*
- *Eraikinen okupazioa eta eraikigarritasuna kontatzeko erari dagokionez, 22. artikulua (eraikuntza-okupazioa) eta 25. artikulua (goiko solairuak, solairuarteak eta ganbarak) egokitzea, Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Arau Orokorren eta Urbanizazio, eraikuntza eta ingurumen, paisaia eta naturaren kontserbaziorako Udal Ordenantzaren arabera.*
- *O partzela ekipamendu publiko bezala definitzea. Hortaz, 424 m²-ko azalera duen lursail horrek 315 m²-ko eraikigarritasun fisikoa izango du.*
- *Planean Ibarako lurpeko pasabidetik poligonoraino oinezkoen eta bizikleten irisgarritasuna aurreikustea. Baita lehendik eraikita dagoen poligonoarekin konexioa eta poligono berriko barneko bidegorri sarea eta bizikleten aparkalekuarekiko lotura ere. Bizikletentzako bideak oinezkoen bidetik segregatua eta funtzionala izan beharko du.*
- *Urbanizazioen faseak eta honekin lotutako antolamendu xehatua egokitzea txosten teknikoan jasotzen denaren arabera. Izan ere, poligonoaren lehen fasea bakarrik eraikita dagoela ere mugikortasun modu guztiak ondo funtzionatzea bermatu beharko da.*
- *Kontserbazio-unitateak mantendu beharreko eremua egokitzea txosten teknikoan esandakoaren arabera. Jasangarritasun ekonomikoaren memoria ere zuzendu egin beharko da.*
- *Orokorrean, Plan Bereziaren ordenantzetan jasotzea ingurumen azterketa estrategikoan ondorioztatutako alderdiak; besteak beste, ibai-ibilgu perimetrala eta ekaitz-putzua lehenagotzeko neurriak jaso beharko dira; horien artean, ur emari minimo bat iraunkorki mantentzeko neurriak.*



TOLOSAKO
UDALA

2019/04/30an, "8. Apattaerreka" hirigintza esparruko "18.1. (Tolosa)-Ibarrako lurrak" azpiesparruko hiri antolamenduko plan berezi zuzendua aurkeztu da.

Espedienteko txosten teknikoa ikusirik eta udal teknikariaren proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Hasierako onespena ematea 2019ko apirilaren 30ean aurkeztutako "18. Apattaerreka" hirigintza esparruko 18.1. (Tolosa)-Ibarrako lurrak" azpiesparruko hiri antolamenduko plan bereziari.

BIGARRENA.- Jendaurrean jartzea Plan Berezia eta Ingurumen Azterlan Estrategikoa 45 EGUNEZ, alegazioak aurkeztu ahal izateko, eta dagokien administrazioei txostenak eskatzea, EJko Irismen Agiriaren arabera.

HIRUGARRENA.- Agintzea, Planari behin betiko onespena eman aurretik, honakoak bete beharko direla, besteak beste:

1. Proposatutako aparkaleku kopurua egokitu egin beharko da honako irizpideak kontuan hartuta:
 - Aparkaleku publikoak ere konputatu arren, ibilgailuentzako aparkaleku plaza 1 aurreikusi beharko da 100 m²(s)-ko.
 - Aparkaleku pribatuek izan dezaketen eraikigarritasunarekin proportzioa mantendu beharko dute (lurgainean sartzen ez badira, sotoa eraikitzeo aukera aurreikusi beharko da ordenantza partikularretan).
 - Horretaz gain, bizikleten aparkalekuak aurreikusi beharko dira, autoak aparkatzeko erabiltzen den aparkaleku plaza pribatuekin batera.
Autoen aparkalekuek okupatzen duten azaleraren % 10 izan liteke lursail bakoitzean bizikletentzat aurreikusi beharrekoa.
2. Plana generoaren eta hizkuntzaren ikuspegitik ebaluatu beharko da.
3. GI-2130-A errepidearen babes-eremuan egoteagatik Errepide Saileko baimena lortu beharko da.



TOLOSAKO
UDALA

4. Ekonomia eta Enpresa Ministerioko Telekomunikazio eta Informazioaren Teknologien Zuzendaritza Nagusiaren Txostenean jasotako baldintzak bete beharko dira.
5. Zortasun aeronautikoen aldeko txostena jaso beharko da.
6. Azpiegiturei dagokienez, lortu beharko dira udal ingeniariaren eta dagozkion administrazio edota erakundeen aldeko txostenak.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea TOLOSAKO APATTAERREKA INDUSTRIA LURRA, S.A.-ri eta Ibarako Udalari.

5. ONARTZEA INAUTERIETAKO KARROZAK GORDETZEKO PABILOI INDUSTRIAL BAT ERRENTAN HARTZEKO LIZITAZIAORI HASIERA EMATEA.

AURREKARIAK:

2019ko maiatzaren 2an, Kultur teknikariak txosten bat egin du. Bertan, Inauterietako karrozak gordetzeko pabiloi baten beharra azaltzen du, eta esaten du Tolosako Udalak ez duela baliabide nahikorik karrozak gordetzeko eta, beraz, guztiz beharrezkoa dela kanpoko pabiloi batean gordetzea, eta horretarako behar den prozedura jarraitu behar dela.

Horretarako, proposatzen du bi urteko kontratu bat egitea, bi urtez luzatzeko aukerarekin.

Txosten horretan 69.000 euroko zenbateko bat azaltzen da urteko prezio gisa. Prezio hori, ordea, ez dago peritu-txosten batean oinarrituta (ez da egiaztatzen merkatuko prezioa hori denik).

Bestalde, zerbitzu-kontratutzat definitzen da kontratua, baina ondare-kontratua da (kontratu pribatua). Aipatzen den kaudimen-baldintza ere ez da egokia kasu honetan.

Kokapenari buruz, txostenak dio ez dela onartuko 5 kilometro baino urrutiago dagoen pabiloirik. Txosten teknikoak, ordea, ez du baldintza hori jarri. Sarrerako atearen neurriak ez datoz bat udal ingeniariak azaldu dituen neurriekin.

Honi buruz, ondorengo aipatzen dut:



TOLOSAKO
UDALA

- Kontratuaren epeak gehienez urtebetekoa izan beharko du, urtebete horretan erabiltzaileek erabilera honen inguruko neurriak har ditzaten, haiek izan behar baitute errentamendua jabearekin zuzenean sinatu behar dutenak.
- Kontratuaren kalifikazioa zuzendu egin behar da. Baita kaudimen baldintza ere.
- Baldintza teknikoen plegua aurkeztu behar da, eta bertan garbi azaldu behar da zein diren pabiloiaren ezaugarriak, ingeniariaren txostenak azaldutakoarekin bat etorrita (atearen neurriak, erdigunetik (Trianguloa plazatik) gehieneko distantzia bat zehaztu behar ote den...).
- Batez ere, espedientearen bultzatzaileak jaso behar du peritu-txosten bat, non errentamenduaren merkatuko prezioa justifikatuta agertuko den.

TXOSTEN JURIDIKOA:

Administrazioak ondasun eta eskubideak eskuratu ahal izango ditu.

Eskuraketa lehiaketa publiko baten bidez egin ahal izango da, non eta arrazoi hauengatik zuzeneko eskuraketa onartzen ez den: bete behar den premiaren berezitasunak, higiezinaren merkatuaren egoera, ustekabeko gertaerek sartzen duten erosteko presak, edo ondasunak izan dezakeen egokitasun berezia.

Eskubide edo errentamendu bat kostu bidez eskuratzeko, nahitaezko izango da Toki Korporazioen kontratazioa erregulatzen duen araudian jasotako baldintzak betetzea.

LEHENA. Legeria aplikagarria hau da:

- Administrazio Publikoaren Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 110. eta 115.-121. artikulak.
- Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduaren 9.-11. artikulak.
- Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen* 9. eta 115.-155. artikulak eta Bigarren, Hirugarren eta Hamabosgarren Xedapen Gehigarriak (aurrerantzean SPKL).



TOLOSAKO
UDALA

*(*Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora)*

BIGARRENA. Aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 9. artikulua arabera, lege honetatik kanpo gelditzen dira ondasun higiezinak, balore negoziagarrien eta ondasun gorpuzgabeen gainean egindako salerosketa-, dohaintza-, truke- eta errentamendu-kontratuak eta gainerako antzeko negozio juridikoak (ordenagailu-programei buruzkoak salbu); kasu horretan, hornidura- edo zerbitzu-kontratutzat joko dira eta).

Toki erakundearen ondasunen erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua da jarraitu beharreko ondare-legeria.

Administrazio Publikoaren Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 110.1 artikulua arabera, kontratuei, hitzarmenei eta ondare-ondasunen eta ondare-eskubideen gaineko beste negozio juridiko guztiei, beren prestakuntzari eta esleipenari dagokienean, lege hau eta berau garatzen duten xedapenak aplikatuko zaizkie; arau hauetan aurreikusita ez dagoenerako, berriz, Administrazio publikoaren kontratuei buruzko legeria. Haien ondorioetarako eta azkentzerako, lege hau eta zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

Ondare-legeriak egiten duen igorpenaren arabera, kontratu honi arau hauek aplikatuko zaizkie: kontratuak prestatzeko arauak (SPKLren 115. artikulutik 130.era bitartekoak) eta kontratuak esleitzeko arau orokorrak (SPKLren 131. artikulutik 155.era bitartekoak).

HIRUGARRENA. Errentamendua da ondasunen erabileraren kostu bidezko lagapen mota bat, zeinaren bidez, eta Kode Zibilaren 1.543. eta hurrengo artikuluen arabera, alderdietako batek (higiezinaren jabeak) bere burua behartzen duen bestea (Udala) ondasun baten (kasu honetan Toki Erakunde baten ondare-higiezina) gozamina edo erabilera denboraldi jakin batez eta prezio jakin baten truke ematera.



LAUGARRENA. Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera, higiezinak kostu bidez eskuratuko badira, aurretik peritu-txosten bat behar da.

BOSGARRENA. Higiezin baten errentamendua egiteko prozedura honako hau da:

A. Behin justifikatuz gero errentamendua egiteko Udalak duen beharra edo komenentzia, eman nahi zaion erabilera edo erabilerak, eta proposatutako esleipen-prozedura, Udaleko Zerbitzu Teknikoek txosten bat egingo dute. Txosten horretan jasoko dira, batetik, errentan hartu nahi den ondasunak izan beharreko ezaugarrien eta kokapenaren deskripzioa eta, bestetik, merkatuan duen prezioaren balioespena.

B. Kontuhartzaitzak txosten bat egingo du, zehazteko errentamenduaren balioak zer portzentaje duen aurrekontuko baliabide arrunten aldean, eta zehazteko, era berean, zein organok duen kontratatzeke eskumena, SPKLren Bigarren Xedapen gehigarriari jarraituta.

C. Errentamendua erabakitzeko eskumena duen organoak hasiera emango dio espedienteari, errentamenduaren beharra edo komenentzia justifikatuz eta errentamendu-eskubidea eskuratzeko modua zehaztuz, eta errentamendua arautuko duen klausula administratibo partikularren plegua idazteko aginduko du.

D. Dokumentu horiek espedientean txertatutakoan, kontratazio-organoak ebazpen arrazoitu bat emango du, espedientea onartzeko eta esleipen-prozedura ireki dadila agintzeko. Ebazpen honek gastua onartzea ere ekarriko du berekin.

Ebazpen hau kontratzailearen profilean argitaratu behar da.

E. Esleitzeko-prozedurari hasiera ematen zaio lizitazioaren deialdia egitearekin batera. SPKLren 135. artikuluaen arabera, kontratuaren esleipenerako lizitazio-iragarkia kontratzailearen profilean argitaratu behar da.

F. Interesa duten pertsonen eskaintzek klausula administratibo partikularren pleguan aurreikusitako baldintzak bete behar dituzte. Eskaintza aurkezteak esan nahi du baldintza horiek denak onartzen direla.



TOLOSAKO
UDALA

G. Kontratazio-organoak kontratazio-mahai baten laguntza izango du. Mahaikideak kontratazio-organoak izendatuko ditu.

SPKLren Bigarren Xedapen gehigarriaren 7. puntuaren arabera, kontratazio-mahaiko burua udalbatzako kide bat edo funtzionario bat izango da; mahaikide izango dira udalbatzako idazkaria edo, hala behar duenean, udalbatzari aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duen organoaren titularra, eta kontu-hartzailea, edo, kasua bada, kontrol ekonomikoaren eta aurrekontukoaren gaineko eginkizuna esleitua duen organoaren titularra, bai eta, karrerako funtzionarioen edo udalbatzaren zerbitzura ari diren langile lan-kontratadunen edo zinegotzien artean kontratazio-organoak izendatutako beste batzuk ere; kopurua, guztira, ez da hirutik beherakoa izango. Kontratazio-mahaiko kide diren hautetsiak ezingo dira izan mahaiko kide guztien herenak baino gehiago.

H. Bat etorrita SPKLaren Bigarren Xedapen gehigarriaren 7. puntuarekin eta Sektore publikoko kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21.4 artikularekin, kontratazio-mahaiaren osaera Kontratatzailearen profilean argitaratuko da gutxienez zazpi egun lehenago SPKLren 140.1 artikuluan aipatzen den dokumentazioa kalifikatzeko behar den bileraren eguna baino.

I. Kontratazio-mahaia bildu, eta proposamena egingo du.

Matematikoki ebalua daitekeen irizpide bat erabiliz gero, gutun-azal bakarra aurkeztea egongo da. Proposamen ekonomikoaren irekiera jendaurrean egingo da, eta egindako guztia dokumentuetan jasoko da.

Hartarako eskumena duen organoak eskatu ahal izango ditu, bere proposamena egin aurretik, beharrezkotzat jotzen dituen txosten guztiak. Era berean, txosten horiek eskatu ahal izango dira, baldin eta eskaintzek pleguko baldintza teknikoak betetzen dituztela egiaztatu behar bada.

J. SPKLren 150.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio-organoak mahaiaren proposamena onartutakoan, dagokien zerbitzuek eskaintza onena aurkeztu duen



TOLOSAKO
UDALA

lizitzaileari errekerimendu bat bidaliko diote, klausula administratibo partikularren pleguan ezarritako aurretiko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkez dezan. Horretarako, **hamar egun balioduneko epea** emango zaio, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatuta.

Kontratazio-organoak **kontratua esleituko du dokumentazio jaso eta bost egun baliodun igaro baino lehen.**

K. Esleipenaren ebazpena arrazoitua izango da, eta hautagaiei zein lizitzaileei jakinaraziko zaie; gainera, **kontratatzailearen profilean argitaratu behar da 15 eguneko epean.**

SPKLren Hamabosgarren Xedapen Gehigarriari jarraituta, jakinarazpena **bitarteko elektronikoen bidez** egingo da.

Jakinarazpenak zein publizitateak informazio nahikoa jaso beharko dute, esleipen-prozedurarekin interesa dutenei aukera emateko esleipen-ebazpenaren aurka behar bezala oinarritutako errekurso bat jartzeko.

Jakinarazpenean adieraziko da kontratua zein eperen barruan formalizatu behar den.

N. SPKLren 153. artikulua araber, **kontratua formalizatu behar da** administrazio-agiri batean. Agiri hori lizitazioaren baldintzei lotuko zaie, estu-estu, eta nahikoa titulu emango du edozein erregistro publikotan sartzeko.

Kontratua formalizatu behar da, gehienez, hamabost egun balioduneko epearen barruan, hautagaiei eta lizitzaileei **esleipena jakinarazi** (SPKLren 151. artikuluan aurreikusita dagoen moduan) **eta hurrengo egunetik kontatuta.**

Beraz, pleguak arautegia betetzen du.

Aurreko guztia kontuan izanik, udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Inauterietako karrozak gordetzeko pabiloi bat errentan hartzeko baldintza pleguak, batzarkideen proposatutako aldatetkin, eta prozedurari hasiera ematea.

BIGARRENA- Erabaki honen berri ematea Kultura, Gazteria eta Festak Departamentuari.

6. ALKATETZA-DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019KO MAIATZAREN 16TIK 22RA (DK2019/819-2019/865).

Alkatetzak 2019ko maiatzaren 16tik 22ra bitartean (DK 2019/819-2019/865) egin dituen dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei. Honako hauek dira:

ZKA	AÑO	EGUNA	DEPARTAMENTUA	OHARRA
819	2019	16/05/2019	IDAZKARITZA	ORVE ERREGISTRO ELEKTRONIKO APLIKAZIOAN ALTA EMATEA ETA ERABILTZAILEAK IZENDATZEA.
820	2019	16/05/2019	PERTSONALA	UDALEKO LANGILEARI URA ETA ARGIAREN FAKTURAK ORDAINTZEKO
821	2019	16/05/2019	PERTSONALA	IBAI ROSA ITURRIA (ERRENTAKO ADMINISTRARIA)
822	2019	16/05/2019	KIROLAK	2019KO DIRULAGUNTZA IZENDUNA. ZUMARDIA ELKARTEA
823	2019	16/05/2019	KONTUHARTZAILETZA	ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA. OHIKOA EZ DEN ETXEBIZITZAREN ERREKARGUA.2019
824	2019	16/05/2019	HIRIGINTZA	LAUTABI SUSTAPENAK, S.L.U. USABAL AUZOAN EGINIKO PABILOIAREN URBANIZAZIOKO PROIEKTUARI BEHIN-BETIKO ONARPENA EMATEA
825	2019	17/05/2019	KULTURA	LEIDORREKO ZINE EGITARAUEKO APIRILEKO FILMAK KONTRATATZEAGATIK FIDES NORTE S. COOP.EN FAKTURA ONARTZEA.
826	2019	17/05/2019	HIRIGINTZA	EUSKAL HERRIA PLAZA 4KO TEILATUA KONPONTZEKO OBRA BAIMENA
827	2019	17/05/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	ZUTANI ELKARTEARI 2019. URTEAN DIRU-LAGUNTZA ZUZENA EMATEKO HITZARMENA ONARTZEA.
828	2019	17/05/2019	ALKATETZA	VENTA DE BAÑOS BISITARAKO DIRU ESKAERA.
829	2019	17/05/2019	IDAZKARITZA	ALHONDIGA GARAJEKO 141 ZKA. DUEN GARAJEAREN ESKUALDATZEA
830	2019	17/05/2019	KULTURA	GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEARI LEIDOR UZTEA MAIATZAREN 20-21-23AN, "GU ERE BERTSOTAN" EKIMENERAKO
831	2019	17/05/2019	IDAZKARITZA	PLAZA BERRIKO 36 ZENBAKIA DUEN GARAJEAREN ESKUALDATZEA. IÑAKI LIZARRALDE GOROSTEGUI.
832	2019	17/05/2019	IDAZKARITZA	PLAZA BERRIKO 16 ZENBAKIA DUEN GARAJEAREN



ZKA	AÑO	EGUNA	DEPARTAMENTUA	OHARRA
				ESKUALDATZEA. MARIA CARMEN CASTILLO GARCIA.
833	2019	17/05/2019	IDAZKARITZA	PLAZA BERRIKO 74 ZENBAKIA DUEN GARAJEAREN ESKUALDATZEA. AITOR URCOLA AMUNDARAIN.
834	2019	20/05/2019	HIRIGINTZA	ERREMENTARI 6KO PATIOA KONPONDU ETA ESKAILERAKO EGITURAREN SENDOTZE PUNTUALA EGITEKO OBRA BAIMENA
835	2019	20/05/2019	FESTAK	TTONTTOR SAN ESTEBAN AUZOKIDE KULTUR ELKARTEAREN 2018KO DIRULAGUNTZAREN KITAPENA ONARTZEA ETA BIGARREN ZATIAREN ORDAINKETA ONARTZEA.
836	2019	20/05/2019	AZOKAK	EMARIKOEN ESKAERA BERRITU
837	2019	20/05/2019	UDALTZAINGOA	BELENA PATIORAKO ESKAERA BERRI BAT ONARTZEA
838	2019	20/05/2019	KONTUHARTZAILETZA	BALIO ANITZEKO ETXEBIZITZA SOZIALEN 2019KO MAIATZEKO ERROLDA ONARTZEA.
839	2019	20/05/2019	KONTUHARTZAILETZA	AGARAMUNDU KALEA 7, KONDEANeko ALDAPA 11 ET EUSKAL HERRIA 1B ETXEBIZITZETAKO 2019KO EKAINeko ALOKAIRUAK ETA KOMUNITATE GASTUEN LIKIDAZIOA.
840	2019	20/05/2019	KONTUHARTZAILETZA	EUSKAL HERRIA PLAZA, BERDURA PLAZA, ZERKAUSIA ETA ATADI KALEKO MERKATUEN 2019KO 2.HIRUHILABETEKoAREN ERROLDAK ONARTZEA.
841	2019	20/05/2019	INFORMATIKA	LDORI ESKATU UDALETXEA, KULTURETXEA ETA GOROSABEL ERAIKINAK ZUNTZ OPTIKOAREKIN LOTZEKO AURREKONTUA ONARTZEA
842	2019	20/05/2019	IDAZKARITZA	TOLOSAKO UDAL MUSIKA BANDAREN ZERBITZUA ESLEITZEA
843	2019	20/05/2019	IDAZKARITZA	SAN JOAN PLAZA 2-5D ETXEBIZITZA TASATUAREN SALMENTARAKO GEHIENeko PREZIOA JAKINARAZTEA
844	2019	20/05/2019	PERTSONALA	2019KO BIZITZA SEGURU KOLEKTIBOA
845	2019	21/05/2019	HIRIGINTZA	ERREMENTARI KALEA 28 BEHEKO "LAIER" TABERNAREN JARDUERA BAIMENA IRAUNGITZEA
846	2019	21/05/2019	HIRIGINTZA	RONDILLA KALEA 1 BEHEKO LOKALAREN BARNE ERAISPENA EGITEKO OBRA AMAIERAKO LIKIDAZIOA ETA HONDAKINAK KUDEATZEKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO ERREKERIMENDUA
847	2019	21/05/2019	UDALTZAINGOA	ZENBAKIA 321-2019 DUEN TRAFIKO ESPEDIENTEARI DAGOKION DIRU ITZULKETA
848	2019	21/05/2019	UDALTZAINGOA	ZENBAKIA 207-2019 DUEN TRAFIKO ESPEDIENTEARI DAGOKION DIRU ITZULKETA
849	2019	21/05/2019	UDALTZAINGOA	ZENBAKIA 197-2019 DUEN TRAFIKO ESPEDIENTEARI DAGOKION DIRU ITZULKETA
850	2019	21/05/2019	UDALTZAINGOA	ZENBAKIA 317-2019 DUEN TRAFIKO ESPEDIENTEARI DAGOKION DIRU ITZULKETA
851	2019	21/05/2019	PERTSONALA	BORJA MARCOS OLANO (IKASTARO ESKAERA)
852	2019	21/05/2019	PERTSONALA	JON MUTUBERRIA (PERTSONAL EBENTUALAREN KARGU UZTEA)
853	2019	21/05/2019	IDAZKARITZA	SAN JOAN PLAZA 2-6E ETXEBIZITZA TASATUAREN GEHIENEZKO PREZIOA JAKINARAZTEA
854	2019	21/05/2019	PERTSONALA	MIGUEL ANGEL PLAZAS TADEO (PERTSONAL EBENTUALAREN KARGU UZTEA)
855	2019	21/05/2019	PERTSONALA	APIRILEKO GIZARTE SEGURANTZAKO KOSTEA ONARTZEA



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	AÑO	EGUNA	DEPARTAMENTUA	OHARRA
856	2019	22/05/2019	HIRIGINTZA	ERREMENTARI KALEA 34-1.EZKERRA ETXEBIZITZAREN ERREFORMA EGITEKO OBRA BAIMENA
857	2019	22/05/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	MAIATZAK 20 ELKARTEARI, SAN ESTEBAN 20-3. SOLAIRUAN "OPORRAK BAKEAN" PROGRAMAKO ATERPETXEA MUNTATZEKO LAGATZEKO ESKERA UKATZEA.
858	2019	22/05/2019	KONTUHARTZAILETZA	IBILGAILUEN ZERGEN DIRU ITZULKETA BEHIN-BETIKO BAJAK DIRELA ETA ESPEDIENTEA 2019 TMIZ 0002
859	2019	22/05/2019	GAZTEDIA	J.I.T.RI GAZTERIAKO 2018KO DIRULAGUNTZAREN BIGARREN ORDAINKETA EZ ONARTZEA ETA LEHENENGO ORDAINKETA ITZUL DEZAN ESKATZEA.
860	2019	22/05/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	LAGUNTZA TEKNIKOEN KUDEAKETA EGITEKO PEÑASKAL KOOPERATIBAREKIN KONTRATU TXIKIA SINATZEA.
861	2019	22/05/2019	PERTSONALA	2019-202 UDALTZAINEN EGUTEGIA
862	2019	22/05/2019	IDAZKARITZA	UDALEKO LANPOSTUAK AZTERTZEKO, BALORATZEKO, FUNTZIOAK BERRAZTERTZEKO ETA LANPOSTUEN ZERRENDA EGOKITZEKO LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.
863	2019	22/05/2019	KONTUHARTZAILETZA	ZATIKAPEN ESKAERA ONARTZEA ESPEDIENTE 2019 KZZG 0013
864	2019	22/05/2019	KONTUHARTZAILETZA	ZATIKAPEN ESKAERA ONARTZEA ESPEDIENTE 2019 KZZG 0014
865	2019	22/05/2019	KONTUHARTZAILETZA	ZATIKAPEN ESKAERA ONARTZEA ESPEDIENTE 2019 KZZG 0015

Denak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 15:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA